

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Simona Azpiroz Nazabal

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1926)*

Aurkibidea



Biografia



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen 1926an. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. Zortzi senidetan azken-aurrena zen bera. Eskolan plazan ibili zen. Urdinarrain auzoko Etxoinberri baserrira ezkondu zen. Bere senar Bixente Saizarrekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

BRS-022

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-23
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider

BRS-023

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-18
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Herrian galtzak jantzi zituzten lehenengo emakumeak

- **Erref:** BRS-022/002
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:00:24. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Simona eta bere familiako beste emakume batzuk izan ziren soroko lanetarako galtzak jantzi zituzten lehenengo emakumeak herrian. Kritika asko jaso zituzten horregatik, baina beraiek erosotasunagatik eta babesagatik jantzen zituzten. Apaizak ere haien kontra hitz egiten zuen, baina pixkanaka herriko beste emakumeak ere galtzak jantzen hasi ziren.

Transkripzioa

-Gu mendia ibiltzen giñen ba gizonak bezelaxe, berdin-berdin-berdin. Ama izaten gendun etxen, baiño gizonak eitten zun lan guztie eittea juten giñen mendia. Igual izango zen egurrakin, igual izango zan belarrakin, denera ibiltzen giñen mendia. Eta hasten giñenen udazkeneko lanetan, ta garoa gizonak ebakitzen zuen, maille bat eitten zuen, ta guk bildu in ber izaten gendun, ta biltzeko hartzen gendun esku baten itaie, itai honekin azpitik hartzen gendun garoa, eskukin hola kontuz, ta hola bera genekarkila ba iztarran ondoan joaten zan, ez, ta zanko denak eta iztarra denak-eta eukitzen giñun ba dena urratuta. Ta ordun hori ez itteko bonbatxoak, bonbatxoakin ibilli behar huken-eta. Eta anaiak hasi zitzaizkigun hola esaten: "Bai, zaute ixilik, jendek earki hitz eingoik, zea hasiko zeate hor!". Ta behintzat gure mutill hoik animatu giñuen ta gu baita ere, haen galtzak guk ondo giñun, eta bueno, haik jantzitzen giñun eta hasi giñen hola. Hori ez markatzeagatiken.

-Lanerako.

-Lanerako. Baiño giñen gu bakarrik. Aurrenetako bat ni nitzen eta beste bi neekin koiñata ta beste bat neekin ibiltzen zienak, hirurok hasi giñen aurrena hola. Eta, Aintzerga esaten zaio hor atzeko barrio horrei, eta zea hortaa joan giñen baten gizon batek hola pasadizoan esan zion anaiari, Josei, esan zion: "Hpk zer dittuk hok, abioietiken botak al dittue hok holakoak?". "Hik utziek hoiri paken, hoik errespetoz zebiltzek eta", esan zion Josek. "Hik utziek". "Ju-ju-ju", parrea einda joan zan. Baiño aurreneko urte hortan hartu giñuen hola. Ia handik hurrungo urten beste batzuk'e hasi ziela, ta geo hasi ziela bestek, ya geo mendia garo-lanea joaten giñenen behintzat hasi zien denak. Bai, librengo gelditzen giñen. Bestela hankak zabaltzen ziñulako, izterrak azaltzen zielako, kuleroak ikusten zielako, hainbat aldetaa giñen kritikatura soiñekoakin baldin bagebiltzen. Ta apaizak esan zun bezela, galtzak jantzi giñun ba lotsa galdu gendulako. Iruitzen zaizu hori?

-Hori esaten zun apaizak?

-Apaizak esaten... Lotsa galdu gendula hola hasi giñelako, gizonak bezela jazten hasi giñelako. Ni neetzako gauze kuriosoagoa da. Ta gaur bertan'e ikusten dittut nik. Igual ai zea, gu aitzen giñen bezela, oin patata ateatzen aiko giñen, beste baten artoa bakantzen beste baten. Eta zer? Ibiltzen giñun soiñekoangatik kulerotaraiño ikusten giñen dana atzetik. Nik aurrekoa ikusten nun nola joaten zan kulerotaraiño ikusten zala, ta ni halaxe ikusi behar niñun beste batek.

-Makurtutakuan eta.

-Horregatik. Eta erabat makurtuta joaten giñen, biltzen erabat makurtuta. Ta esango diazu nei lotsa galtzea dala tapatuta jartzea? Politteaoa da. Baiño ez zan hola...

-Lanerako komodoagoa.

-Bai, librengo. Ta gutxigo hoztutzen ziñen; nahiz ta busti tapatuago zenden. Defentsa haundie du galtzak. Horregatiken oin hainbeste ikusten dezu galtza. Defensa haundie. Baiña gure garaien izandu zan oso kritikatura, e! Eta apaiz bat txorrontxano bat, Bikendi, gendun, bueno!, harrek sermoira joan eta handik esan itten zittun. Aaa! Eta geo danak guri beire hola. Bakizu ze eoten dan maxiatzeko jendea.

-Herrian denak jakingo zuten...

-Denak zekien zein zien eta bueno, ya está. Hori pasatzen zan, bai.

2. Neskak goiz etxera, baina mutilak ez

- **Erref:** BRS-022/003
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Emakumeek gizonak baino askatasun gutxiago zuten lehen. Soinu-jotzailea herrira etortzen zenean, dantza egitera joaten ziren; baina eguzkia sartzen zenerako etxera itzuli behar izaten zuten neskek. Mutilek, ordea, ez zuten halako mugarik.

Transkripzioa

-Ba halaxe. Gue bizimodue goorra izandu zan.

-Emakumeentzat beti gogorragoa, ez, alde horretatik, eliza eta.

-Bai, bai.

-Eta emakumeak libertade gutxiago, ez?

-Bai, pentsatzen al dezu. Gu jai atsaldetan joaten bagiñen herria dantzaa, hemen bertako seme bat zan hankamotza, bi hankak ez zitun, bizkarren hartuta ta ibiltzen zuen. Eta akordeoia harek jotzen zun, baiño iluntzen, "Aimarie" esaten zitzaion, elizen jo itten zan garai hartan oaindik, gero belaxe galdu zan-ta, baiño hue jotzeako eon ber zendun etxen. Ia euzkie sartzen zUNETIKEN aurrea ya etxea joan ber zendun. Bestela handik aurrea, bueno! Ezautu dittegu baita berandu joan dielako etxetik kanpoa bialduta ta ibili dittuenak'e.

-Bai, e?

-Bai, ezautu dittegu, aizu. Oaiñ gauerdin atea itten dan bezela, ba ordun ilune hasteako jun ber zendun etxea.

-Hori gizonak ere bai ala emakumeak bakarrik?

-Ez, ez, gizonak libre. Gizonak libre. Emakumentzat izaten zan zea guztie. Arriskua emakumek emen zeuken, ta tentazioa emakumek ematen emen zun. Zuk ala entenditzen al dezu?

-Eta gizonak ez zun batere kulparik.

-Ez zun batere kulpeiken. Ez ba.

-Beti emakumiak.

-Defendittuaoa zan beti. Igual du han eta parrandaa joan eta mozkorkerie ta zea gizonak zun, ez?, baiño...

-Gaiñera izan balitz gizonak lana egin duela eta gero juerga egin duela, baiña lana...

-Berdin-berdin inda, berdin-berdin inda.

3. Emakumeak gizonak baino beheragoko mailan

- **Erref:** BRS-022/004
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Emakumeak beheragoko mailan zeuden lehen. Tabernetan ere ezin izaten zuten sartu, bestela kongregazioko zinta kentzen zien eta. Simonari zinta zergatik kendu zioten azaltzen du. Zinta berreskuratzeko egin beharrekoak eta apaizarekin izandako ika-mikak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

-Baiño aparte beste gauz bat bai baigendun, nik ez dakit nola esan baiño. Gendun, emakumek giñen azpikoak, beheko maille hoi. Gizonak ez zeuken zeiken. Ezertatiken zigorrik ez zeuken. Alde hortatiken bueno, zan... Mutikoak'e bai, e. Neska txar hoik, gu "neska txar hoik" izaten giñen eta mutikoak beste zea bat izaten zuen. Hoi zan matxismo bat, aurren aurrenetik hola ezautu zuen eta hola etorri zan. Bai. Ta taberna batea sartu? Bueno! Kongregazioko zinte, Mariaren Alabak izaten zien garai hartan, gu hala giñen, kongregazioko zinte kenduko ziguen gu harea sartu bagiñen, taberna batea sartu bagiñen. Zuk pentsa zazu nei zergatiken kendu zirean kongregazioko zinte. Nere ahizpe bat ezkondu zan eta haren bodan, nee aman anaia, osaba, bea Donostian-ta ibilitakoa zan-ta, harek dantzan-ta bazekin-ta, dantza lotua ittea ez zan libre. Ordun ba azken-azkeneko momentun, baiño momentu bakarra, osaba horrek eta azkenen jarriaazi niñun dantzan. Eta huexe bukatu bakarra in gendun. Ba hurrengo jaien sermoien hue esan zan elizen. Ta nei Marian Alaban kongregazioko zinte kendu in zien, kendu in zizen. Eta egondu nitzen gabe, eta geo berriz atzea txartela ateatzea jun behar izaten gendun urtero, eta txartela eta dotriñara jun giñenen apaiz horrek beti izaten zun neetzako halako zeozer. Gaztek denak eta bialdu eta bakarrik hartu niñun.

-Lotsagabe ikusiko zintuen.

-Bai ba, ni lotsagabe. Eta lotsagabe in nion, aizu. Hartu niñun zintengatik'e bai. Ta geo zintengatiken eskatu nion jarri al nezaken edo ez. Neska zahar-zahar bat zan, hari ematen genizkion, hue gendun presidenta. Zintak hari, hue garbie zan-ta. Gaiñea -nastutzea nioa baiña igual zaio-. Soltera edo neskazahar zeuden hoiri ez zaie esan behar "neskazaharra", eta "soltera" ere ez, esan behar zaie "etxebirjiñek".

-Etxebirjiñek?

-Bai, gure apaizen legea hola zan. Zien etxe-birjiñek. Ta guk eukitzen giñuen haundi hoik edo zahar hoik ba azpin bezela eukitzen giñuen. Ta esan zian egun baten, bakarrik hartu niñun baten, hemen neska bat estadun geldittu zan, soldaduskatik etorri zan mutil bat, etorri zan Berasteira, bere anaia han ez, eta hor egun batzuk pasa zittun ta, nik ez dakit, harena zula esaten zan, behintzat estadun geldittu zan. Ta geo hemendiken alde ein zun baiño ya sei bat hillebete edo aurreratutakoan. Lotu-lotue ibiltzen zan hola. Guk ez gendun sospetxaik'e horrena izan zittekeenik, ez, baiño geo behintzat kanpoa joan zan, eta geo kanpoan esan zuen semea izan zula. Ba apaiz horrei baten batek esan dio nik esan nula, ta ni hartu niñun. Ta nik esaten nion, aizu, nei ez bañdin badit -berrorrika, e-, nei beorrek ez baldin badit esan behar zeñek esan dion, ez naiz ni hemendik etxea joango. Elizen, sankristin. "Ba joan zaitetz etxera..., lotsagabea!", ta, "Ez, pekatue esatea libre da, eta pekatarie ez? Pekatarie beorri hori esan diona da, ez ni. Ordun datorrela honea, ni hemen egongo naiz". Sankristin bi zea zien, hor sankristi txikie ta hemen sankristi haundie. Ta nik txiki hortatik haundia alde ein zunen, harea ere seittu in nion. Eta esan zian: "Ez al dizut..., alde itteko esan dizut eta" hasi zitzaian eskuk zabaldua, ta alde ein in nion. Ta ez dakit oandiken zeñek esan zion, baiño zan gezurre.

-Esan zuen zuk esan zendula harek umea izan zuela?

-Bai, haren familiak esan zula nik esan nula. Ta hori baten batek hari esan zion. Ta harek sinistu in zun esan zion dana, baiño nerea ez. Eske nei zian gorrotoa bezela, ez. Geo hok zittuan bere semeak baiño maittego. Bai, hok bai. Eta ni honekin nola ibiltzen nitzen, eta nola ni gaiztoa nitzen, "ardi beltza" esaten dan hoitakoa, haren ustez behintzat, ba kargatzen zan nee gaiñen. Nee gaiñen kargatzen zan. Holaxe ibiltzen niñun. Buenooo!

4. Janzkera ez da arimaren ispilu

- **Erref:** BRS-022/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak

Laburpena:

Janzkeragatik inor ezin dela epaitu esaten du. Bere familiako emakume helduen janzkera nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Ikusten zendulako gauzak..., prakak jazteko modua dala ba bueno...

-Bai, bai. Aizu, eta zer? Harek'e frakak jazten zittun eta gonakin tapatu.

Total bi jantzi ibiltzen zittun batea ba. Hoi ez da persona bat juzkatzeko, jantziingatik ezin dezu persona bat juzkatu o txarra dan o ona dan.

-Ez, ez.

-Izan ditteke mundun dan onena nahiz ibilli, ez dizut esaten esajeratu baten azalduta baldin bazabiltze. Guk'e ikusten deu, gaztek izandu gea, badakigu tentazioa zer dan. Hortaiño jartzen bazea bai, pentsatzen dezu atentzioa deitu dezakela gizonan aldeti. Ez? Guk hoi geok ikusten deun gauze da. Baiño guk ez gendun...

-Orduan bueno...

-Bai, bai. Gure ama ta gure garaien etorri zienak bai, gu bezela jantzita zien. Oain, guk amandrea esaten giñun, aittejaune ta amandrea. Amandrea ibiltzen zan beti hanketaiño gona luzekin. Gaiñeantzen beste izebak eta gurasoen zeak eta denak ibiltzen zien gure antzea. Luze xamarrak bai baiño zea hortan.

5. Elizara sartzeko janzkerak

- **Erref:** BRS-022/006
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Elizara joateko zer arropa eraman behar izaten zuten azaltzen du. Alargunek beste era batera joan behar izaten zuten. Jaunartzeko janzkerari buruz hitz egiten du. Eskote handi xamarra eramanez gero, elizan jauna hartzea ukatu edota elizatik bidali izan zituztenak baziren.

Transkripzioa

-Lehen esan dezu elizara joateko-ta eskoterik ezin zala eraman, beti goraino itxita.

-Ez, ez. Goraiño itxita.

-Manga lueia bihar izaten zan?

-Bai, bai, bai.

-Manga motza ezin zan?

-Ez, ez, ez, ezin zan. Luzea.

-Luzea, ezin zan, horreaiño tapatuta joan behar zendun, ta aparte matanillie eman behar zendun.

-A bai, e?

-Mantanillie ez dakit ezautzen dezun. Da zea bat. Enkaje baten antzeko beltza zan, enkaje bat bezela hartu ta hoi jartzen zendun ta horrekin tapatuta joan behar zendun.

-Burua tapatuta beti?

-Bai, elizea joateko bai. Eta alargunek eta gaiñea hola ibiltzen zuen, guk ibiltzen gendun enkajea antzea, hola lore batzuk-eta zittuela. Hoik ez, hoik tupittu-tupittu, itxi-itxie. Gasan postorea itxi-itxiko beltz [...] haundi batzuk goitik beheraiño ta juten zanak. Eta alargunek hola ibiltzen zien.

-Danak izaten zien beltzak?

-Bai, bai, bai. Bueno, txurik'e izaten ziela nik'e aittu izandu nun, estilo hortakoak, ez berdiñek baiño komoniotan-ta jartzen zizkien hotan lorekin-ta hola. Baiño ordun dena izaten zan, ordun komunio txikie zazpi urtekin itten gendun, baiño itten gendun baita tapatuta hemen koroia batekin eta hola. Eta komonio haundikoan koroia hoi ez, baiña ordun belo txurie. Bai, belo txurie. Burue eraman behar zendun tapatuta. Ez zeukazun elizea sartzeik, elizea sartu nahi bazenun eta ez bazendun mantal... E, guk esaten giñun bezela..., oaintxe esan det ba baiño ya joan zait.

-Manteliña?

-Bai, bai, bai. Buruko mantaliña. Hori ez baldin bazeukezun besteik ez bada jantzi behar zendun paiñuelo bat. Ez? Patriken zeunkazun paiñuelo bat besteik ez bada; ta harekin atea behar zendun, ta sartu behar zendun elizea. Bai, zan, hain rigurosoa zan.

-Eta gonak?

-Gonak zankerditaraiño. Zankerditaraiño. Honbre! Motxaxeo baldin bazien kritikakua izaten zan hue. Hortiken zean ez zittekeen ibili. Baiño zan, dena zan hola.

-Lehenago esan dezu, puxkat eskote haundiagorekin jun ezkerro jauna ukatu.

-Bai, jaune ukatu zion, hori da, nik baiño, guk baiño izango zittun lau-bost bat urte gehigo.

-Senarra-Elizetik bialdu're bai. Nik ezautu nun don Andres Bikandi hue hola forasteroak etorri kanpotik, eliza ikustea edo sartu ta: "Ez daukazute sartzeik, ez zaudete elizan sartzeko modun", eta bidaltzen.

-Abai? Nik hoi ez, baiña jaunartzea bai. Nola ni han nitzen. Jaunartzea joan zan [Modestoneko] Maria. Hola eskote bat zea, eta geo bular haundik nola zittun, dibisioa puxkat ikusten zitzaiola ta hola ibiltzen zan kanpoan'e. Aizu ba, ez eman in zion. Bera pasa ta "zuri ez dizut emango eskote horrekin". Aurrea, ez eman in zion. Hoik zien gauz batzuk...

6. Bixenteren aita: "Amerikano Handia"

- **Erref:** BRS-022/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera

Laburpena:

<p>Bixenteren aitari "Amerikano Handia" deitzen zioten, Ameriketara urte asko ibilitakoa baitzen. Berastegira itzuli zenean, Ameriketara egindako diruarekin herriko hainbat lursail eta baserri erosi zituen.</p>

Transkripzioa

- Gure aitte zan "Amerikano Handia", [...] horko semea zan, horko baserri hortakoa, hamen motea zan izena Berastegin, "Amerikano Handia" esaten zien danak.

- A bai e?

- Bai.

- Ta Amerikan egona zan?

- Bai, hiru aldiz'e. Horko semea, Saizar. Eta Ameriketa joan emen zan soldaduska liberatu zanen, Ameriketa joan. Ta Ameriketara bere kasa hasi, ta letxero ta zeak ta ustez aberastue, aberastu. Ta geo parte batekin etorri zan Berastegira eta beste bi parte han utzi zittun. Ta parte harekin erosi zun esateko Berastegin erdie bai.

- (Simona) Erdie ez, ez. Lau o bost baserri, Bizente, ez pasa gehiegi.

- Lau o bost baserri ta gaiñe terreno-saillek eta aparte zeak'e asko, erosi zittun asko, sail haundik [...].

- (Simona) Ta hau da, hau da baserri hoitako bat.

- Hoitako bat, aitten herentzie da hau.

- Erosi zuna berak ezta?

- Bai, erosi zuna berak. Han etorri giñen gu.

- Bera ze baserrian jaioa zan?

- Oilloki, horko baserri hortan. Saizar, hor Saizar dia, gu Saizar gea.

- (Simona) Bai, horkoa zan, eta geo baserriok erosi zitun denak eta seme bakoitzei tokatu zitzaion baserri bat.

7. Bixenteren aitaren bizitza

- **Erref:** BRS-022/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera

Laburpena:

Bixenteren aita ganadurekin lan eginda aberastu zen Ameriketara. Itzuli zenean, herriko elizarako kanpai bat erosi zuen. Emakume batekin ezkondu zen, baina haurrik izan baino lehenago hil zen hura; eta orduan neskaarekin ezkondu zen, Bixenteren amarekin, alegia. Bixenteren gurasoek alde handia zuten adinean.

Transkripzioa

Aita nola aberastu zan, ze lanbide euki zuen?

-(Bixente) Ganadero. Ganadukin. Aberastu.

-(Simona) Baiña ganadu asko. Eguynen ez dakit zenbat txekor jaiotzen ziela ta hola.

-(Bixente) Esango dizut. He aberastuta etorri zanen, elizea jun gabe-ta, erlijioa utzita-ta urten askoan ibili zan eta. Elizei ekarri zion kanpana, aurreko kanpana hoi.

-(Simona) Kanpana hoitako bat.

-(Bixente) Hoi jarri zion gue aittek elizei. Izena hantxe dauke: "Matin saizar Ugartemendia, Saizar Lopetegi y Maria Bautista Lizarribar Olano. Hoi zan lengo etxekoandrea. Maria Bautista hoi zan haren andrea. Beastegiko alaba, e. Baiña lengo andrea. baiño ez emen zun familirik izan harekin, abortatu itten emen zittun. Eta geo hue hil zitzaion, eta gure aitte geatu zan bakarrik, eta neskauea gue ama, neskauea zeoan, eta gue amakin ezkondu. Eta gue amagandik etorritakoak gea gu.

-Orduan aurretik egon zan ezkondu ta beste emakume batekin.

-(Bixente) Bai.

-(Simona) Han bizittu zan, ez, ezkondu ta han bizittu zan.

-Ameriketara?

-(Simona) Ameriketara, bai. Eta handik honea etorri zan ustez dirue in zunen inbersioa hemen itteko. Baiño ya andre hoi etorri zan granoak zittula esaten zuen, nik ez dakit zer izango zun, baiño gaixotasun batekin, eta hoi ordun hil in zan. Eta geldittu zan geo, alargun geldittu zan aitte hoi, eta ezkondu zan nexka honekin. Gau parragure ta dana ematekoa da baiño honen aittek ezkondu zanen zeuzken berrogeita hemezortzi urte, ta amak hogeta hiru.

-Bai, e?

--(Bixente) Hiroitaberatzikin hil zan eta nik zazpi urte nittun, sei urte.

-Eta berrogeita hemezortzi urtekin ezkondu eta artian sei seme-alaba izan zittuan.

-(Simona) Eta pentsatu, hirurogeita beratzikin hil zan ta txikina jaiotzeko geldittu zan.

-(Bixente) Bai, gizonak zartuta're balio dula! (Barreak).

8. Gerra ostean lurren jabe, baina ezin haiek erabili

- **Erref:** BRS-022/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:28:14. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aita hil zenean, ama alargun gelditu zen 6 ume txikirekin. Anai-arreba bakoitzak zer egin zuen azaltzen du. Bixente baserrian gelditu zen, baina

lurrak maizterrei emanak zizkien. Horregatik, gosea pasatzea ere tokatu zitzaien. Aurrera atera ahal izateko nola moldatu ziren azaltzen dute.

Transkripzioa

- (Bixente) Hue hil zan eta gure ama geatu zan alargun, jakiñe. Familie ere mutikoskorrez betea, zaharrenak hamar urte, hue seminariora joan zan. Bigarrenak zortzi-beatzi, hark'e hamabikin, joan zan.

-Bai, zuk zazpi ziñun ta beatzi. Jose Ignazio beatzi, zuk zazpi.

-- (Bixente) Hue ere arotzeiara joan zan, Tolosara ofizioa ikastea, Inazio eta baserrin ni geatu nitzen etxean terrenokin.

-() Baserrie, terrenoak bazittuen baiño baserrik ez zun. Baiño berez baserrik ez zuen, ez zuen. Denak maiztarrai emanda zeuzkean. Ta geo nola gerran ondoren gosea etorri zan.

-(Bixente) Urte txarrak zien haiek.

-Nahi izandu zittuen terreno bat edo beste eskuatu ta maizterrak ez zien, ez zien zeditzen, ez zizkien ematen, ta ordun ba goseak bizitzea-ta aillegatu zien. Baserrie gendukenak etxen iten gendun artoa, babarruna, garie. Artoakin taloa eitten gendun, garikin ogia eitten gendun, ta babarruna bagendun. Hok, berriz, batez, joan behar zuen erostea. Nola bazuen, dirue ekarri zuna dena ez zun erosketatan gastatu, baizik geldittu zitzaion diru hoi. Prestamoak zittun. Ordun prestamo haietatiken bizittu zen hoen ama hok soroan hasi zien arte. Baiño honek hamalau urte zittun arte ez zien iñork terrenoik utzitzen lana itteko. Terrenoak bazittuen baiño maizterrak ez zien uzten.

-(Bixente) Bost etxe, bost baserri, baiño ez ziun uzten.

-Baiño hamalau urte zittula honek ordun hasi zien, utzitzen hasi terrenoa puxkat uzten eta hau hasi zan lanen. Ta honen anaia, bi urte gaztegoa baita, hok bi anaiak ikastea ez zien joan, dedikatu zien baserria. Eta handiken biziik atea zien.

9. Gerra ostean nola moldatzen ziren janaria lortzeko

- **Erref:** BRS-022/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, gosea zen garaian, ogia jateko eta janaria lortzeko nola moldatzen ziren Bixenteren eta Simonaren familiak kontatzen dute.</p>

Transkripzioa

- Baiño bere amak esaten zun. Pentsatu gure etxea, guk baserrie bagendun, eta labe haundi bat gendun, eta han itten gendun ogie astelehenetan aste guztiako. Kutxe baten jartzen gendun maindire batzun gaiñen eta gaiñetik beste maindire batzuketan tapatu ximelago egoteko, ez sekatzeko. Eta honen osaba, behorra batzuk, Elduaiña joan zielako ta, gure errenteroa zan, gure etxeko errenteroa zan osaba hoi, ordun behorrek ekarri zittuen gue etxea, eta behorren bila hau joan zanen, gure ama ta honen ama zien lehengusuk. Ordun gure amak ogi hoitako baten zati bat,

erdie edo eman zion honei etxea eamateko. Ta honen amak esaten zun: "harrek zortzi egun baiño gehigo in emen zitun kajoiien, puxke bat kendu. Arreba zuen osasunez moteltxegokoa, ta harrek taloa ezin jan, ta harrentzako izatearren ba han sartu ta eukitzen zun ba mahai hartantxe, berak kajoiak erakusten zun. "Mahi honetxen kajoiien sartu ta ogi puxketa harrek zortzi egun in zittun gure etxen". Patata edo in ber zenduna itteko olioik ez zan, azukreik ez zan, dena ez zan. Ordun ba porru-patatak gauen in ber bazittun'e, esnea egosten zanen gaiñe kendu ta esne-gaiñ hue bota grasa. Gu enkanbio baserrikoak nola giñen, guk txerrie're hiltzen gendun, ardik'e bagiñun ta guk gendun jana, jateko gehigo genun eta. Garai hartan, bakizu, txerri-grasa gaur txarra da ta bota eitten da, ordun dena jasotzen gendun. Pata prejittuk etahoik denak itteko're ba grasa harekin itten zien. Eta gure alabak eta askotan: "Ama, baiña horrek grasa du", esaten dit. Nik esaten diot:"Neska, gu grasakin indako patata-prejittukin ta zeakin bizitu gea ba. Ta larogeita hiru urte aillegatu gea. Zuek noiz arte egotea espero dezue ba", esaten diot nik alabai.

10. Beraiek sortutako familiaren bilakaera

- **Erref:** BRS-022/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:40:04. **Bukatu:** 00:42:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ezkondutakoan familia ugaria izan zuten, garai hartan Elizak ez baitzuen uzten familia-plangintza egiten. Simonak bere iritzia ematen du gai horren gainean. Bilobei buruz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Geo, jakiñe, honea etorri giñen-ta gu biok hasi giñen ta familie etorri zan eta familie ugarie, ta eskerrak, eskerrak familie. Aurretiken'e bagiñun ugarik eta guk'e ez gendun ikasi tranpaik, garbi esanda.

-Apaizak esaten zuen tranparik ez egiteko?

-(Simona) Honbre! ta ez ziñula absolbittuko. Pekatu haundie zan. Nik bakizu zer dan esaten detena? Nik ezautzen dittut neonek, apaiz asko daude apaizetatik atea ta ezkondu dienak. Baiño ez zapi ta zortzi ume dittuenak! Eeez. Ordun gutzat zan pekatue eta oiangoantzako ez? Nik hoi askotan esan detena da. Aizu, biok bakarrik etorri giñen, baseeri ze hontantxe giñen, hemendik umek mantendu behar giñun, eskolatu behar giñun, ta gu fortzatu iten giñuen ba ekartzea, "jainkoak nahi du" esan eta ekartzea. Baiño oaiñ hortik atea ta jarri dienen, jainkoan nahie haik azaldu in behar lukea!, azaldu, ez gorde.

-Bueno, bale. ... Behintzat hola, familia haundie, ta familiarrak lagundu ziguelako hementxe atea giñun famili galantakin; oain hementxe bizi gea. Denak bizi die. Zazpi seme-alaba dittieu ta zazpik bizi die. [...] eta abar eta, denak ezkondu zaizkigu, bakoitze bere tokitan bizitzen jarri die, denak ume bana, bina edo hiruna. Batek hiru. Kontxi edo lehen esan dezun horrek, Jabierren zerak hiru dittu. Baiño gaiñeakoak denak biña due.

-(Simona) Denak sanoak.

-Eta hamabost illoba, hamasei. Oain gaiñea beste bat deu, seme zarrenak oaiñ izan du bestea, billoba.

-(Simona) Illoba zaharrenak badu ya.
-Orduan birramona ta birraittona egin zerate.
-Bai, hala gaude. Muriko bat zoragarrie, [...], dauzke beatzi hillebete, zoragarria!, rubio-rubioa, baiño dau..., esaten dana, jateko modukoa.

11. Lehengo ezkontzak

- **Erref:** BRS-022/024
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkondutakoan, San Ferminetara joan ziren. Lehen ezkontzak nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Ezkontzako doteari buruz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Ezkondu ta urtebetea. San Fermiñea joan giñen ezkondu, San Fermiñen ezkondu giñen eta, San Fermiñea joan giñen. San Fermiña han in gendun guk. Handik ekarri gendun semea.

-(Simona) Ez dakigu ekarri gendun, geo azaldu zan behintzat.

-Ezkondu San Fermin egunian?

-Ez, nueve, hillen beatzin. Nueve de juio del sinkuentaidos.

-Nola izaten zan ezkontza. Oingo moduan ospatzen zan? Ze arropa ta?

-(Simona) Paisano jantzie dena, e, jantzi zuririk eta ez zan. Ez, gu giñen garaian ez. Baiño dena zan paisano jantzi hau. Eta gurea bitarten ia gure senidek eta aurretik ezkondu zienak ezkontzen zan garai hartan, goizen igual asteazkenakin jeneralen ezkontzen zien goizen. Gosarie etxen ein ta joaten zien biajea.

-Bai,e, goizean ezkondu?

-Bai. Gero etortzen zien [lanbte] einda etxea. Ta jaien izaten zan eliz-sartzea. Elizen ezkondu ta elkarrekin eliz-sartzea esaten zitzaion. Eta egun hortan bodako bazkarie izaten zan nere senidek hola zien garaian, ez. Baiño geo aurrenekotan gu giñen, gu ezkondu giñen eguardiko hamaiketan. Hamaiketan ezkondu ta hemen bertan bazkarie ein gendun.

-Kakonen.

-Kakonen hemen bertan bazkarie ein gendun eta joan giñen biajea ta baita bestek bezelaxe etorri giñen laanbatakin, jaien elizan zea in gendun ta hemen ekin giñon. Geo honea aurea. Histori zaharra holaxe daamaikigu guk. Baiño beira, suerte bat degu eskertu ezin dan halakoa.

-Etz zuek entzun izan duzue, zuen garaian igual ez zan izango hori, baiña dotian kontua-ta, ezkonduak dotia eraman beharra.

-Oain izango dan bezela. Oaiñ'e andre bere aldetiken duna berak ematen du, ez, eta gurasoek ematen baie parte bat ba hue'ere beak ematen du. Arreoa esaten zaiona. Arreo hoi bai. Guk ekarri gendun arreoa, nik ekarri nun arreo bat hona, honentzako elizea joateko jantzi behar zun erropa ta dena nik ekarri nun.

-A bai? Hori zela izaten zan, gurdiarekin ekarri eta...

-Ez, ez. Ya orduako hoi ya ezautu're ez. Guk ezautu're ez degu ein.

Berastein bai. Gure aitta zanak bere arreoa zabaltzen aitzen zala esaten zan, baiño gue senidek, berrogeita..., zaharrenak'e hoi ya ezkondu zan hogeita sei urtekin, eta hoi zan garaian'e zan normal. Orrek Orejako zuna emaztea, eta Orejatiken arreoa ekarri zuen aberetan, aberetan ekarri zuen.

Ordun ba dozena bat maindire gaiñeko, azpiko, zera, sobrekama, bueno... eitten zan dena, dena. Oain ohittura hoi guk bagendun hoi. Nola nik etxe berria etorri behar nun gaiñea, ba sukaldeko ontzie ta zera guztie ta dena, dena ekarri gendun, bai.
-Dena berriro hasi giñen eta, dena berriro.

12. Ezkontzako apaingarriak

- **Erref:** BRS-022/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:46:52. **Bukatu:** 00:49:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Lehen ezkontzako apaingarrietan lihozko izarak, alkandorak eta toallak oparitzen ziren. Simonak ez du inoiz ikusi lihoa nola egiten den, nahiz eta inguruan bazituen hura egiten zekitenak.

Transkripzioa

-Maindireak eta esan dezue. Ezagutu dezue linuzko maindirerik?
-Nik bai. Nik neonek ekarri nittun honea. Izeba bat zan nere barriotan, eitten gendun koperatiba bat bezela elkarrekin lana. Hoi zan matrimonio bat umeik ez zuna. Eta geo hartu zuen gizonan aldeko mutil bat. Eta hue ezkondu ta jarri zitzaion. Baiño izeba horrek berak berez eskuz indako liño hoi tako zeak zeuzken rolloak, rollotan bilduta. Harizko maindirek esaten giñon. Eta haitatiken bi maindire eman zizkian honea etortzeko. "Hainbeste baden lagundu eta hau jaso itzin rekuerdotaako, e!", ta. Guri hika itten ziun harrek. "Jaso itzin" eta. Haik ekarri giñun, eta ezautu bai. Ta geo aparte Josen etxen horren izebak kutxen eukitzen zun baiño bueno. Garai hartan arreoan-eta itten zitzaien gizonai itten zitzaien alkandora, linozko alkandora baiño dena bordatuta. Eta hola mokasin zea hontan kuello bat hola ixten zana, itxie, kuelloik gabe hola itxie ta dena bordatuta ta hola. Hoik nik ezautu dittut nere anai horren etxen. Oain ze ein zien ez dakit, gero ze in zien. Baiño toallak eta're linoz itten zittuenak, ta hola bolante luze-luzek parpailletan bainikakin ta geo zeatuta eindakok hola, ta beak bordatuta koloretako harekin, gorri-urdiñekin-eta. Bordatutakuak-eta harenak, eta gue ama zanak halaxe zuen arreoan, hoik ezautu bai. Oain, guk gerentzako geok, esan detena, honek emandako bi maindire bakarrik.
-Berak egindakuak zien bi maindire horrek. Zure izebak egindakuak?
-Bordatuta izeba horrek.
-Eta linoa ezagutu dezue hemen soroan?
-Ez, ez, ez, hori ez. Haria itten ez. Ardi-illeakin harie itten bai. Baiña liñoakin itten ez. Hoi iñoiz ez. Izeba honek, esan detena eman zizkiala, honek esaten zidan gaztea nintzela: "Nik eakutsiko niken, oaindiken bazeakinak liñoa nun daon, ta ekarri ta eakutsiko niken", baiño, bai... Gizonakin bakarrik bizi izzn zen ta ez zan aileatzen ezta..., iñoako ez zan ailegatzen-ta. Nik ikusi ez det in. Ikusi ez det in nola itten zan. Baiño arreoan esaten zuen beak etxen haria ein ta beak indako zeakin, maindirekin izaten zala garai hartakoa.

13. Erditze lanerako prest logela

- **Erref:** BRS-022/026
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:49:31. **Bukatu:** 00:50:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lehen logelan apain-mahaia egoten zen, eta haren barruan garbiontzia. Garbiontzi horren gainean lihozko toalla egoten zen, eta azpian balde bat. Emakumeek umeak logelan izaten zituzten, eta balde hori lagungarria izaten zen.

Transkripzioa

-Baiño izaten zan ordun, kuartoan izaten zan tokadore bat. Klaro, baserritan jaiotzen zien umek, ez. Izaten zan tokadore bat hola hankaluzekin, ez, ta goien zun zulo bat hola. Ta zulo hortan zan palenkana zuri bat, eta haren barrun jartzen zuen txarro bat, txarro zuri bat. Hori zeazkoa zan, esango al dizut, portzelanazkoa. Ta ordun, toalla esan dizut hola bordatuta. Toalla hoi egoten zan horren gainen txintxilika. Kuartoa sartzen zinenen beti palenkana, txarroakin, txarroa hutsik arten, eta txarro horren gainen jarrita toalla hoi eukitzen zuen. Hue holaxe zan.

-Eta holakuak izaten zien kuartuak?

-Geo zun horrek palenkana horrek azpin zun hola balde txiki bat bezela. Eta igual parton da geatzen zienen, txarro hortan ure ekartzen zuen kuartoa, palenkana hortan garbitzen zien ta ur hoi, altxako balitz bezela altxa ta juten zan behera balde hortaa.

-Prestatuta zeuden orduan kuartoak partoetarako ta.

-Bai, deneako prest egoten zien.

14. Etxeko sua eta ura lehen

- **Erref:** BRS-022/027
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:50:47. **Bukatu:** 00:52:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Simonak ez zuen lurreko sua ezagutu, baina inguruko etxe batzuetan bazegoen. Etxe batzuetan urik ez zuten, eta ura lortzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Sukaldek hain atzeratuk izango zien garai hartan. Guk, nik nere garaien lurreko sue ez det ezautu. Guk gure etxen ni, ez dakit jaiotzeako baiño, nik ezautu nun ekonomika, lurreko sue ez. Baiño izeban eta inguruko etxetan bai lurreko sue. Ta sukaldek zien, nola esango dizut ba, nahita're, guk ure bagendun, baiño gure bi izebak'e, oain esan deten familik ez zuen urik eta beste izebak'e urik ez zuen etxean. Eta joaten zien itturria, hartzen zuen "suille" esaten zien, zan egurrezko hola gauz bat borobille, holako bat altue bazun, eta egurre dena. Gero hola aro batzuk bueltan urre koloren hola

zittula, izaten zittun. Suille. Hue betetzen zuen iturrin, hemen "burukotea" jartzen zuen, ez dakit ikusi dezun behiñ'e, gauz zea bat, almodille bat bezela, ta erdin txuloa du, ez, eta almodilla bat bezela da, hemen jartzen zuen, hartu eskuekin eta txukun-txukun jartzen zuen, eta gue amonak-eta eskuk hola txintxilik zittuela, hue burue bete-betea goien, eta holaxe zuela joaten zien etxea. Haitan eamaten zen urekin eiten zuen, bai garbitasuneako, bai jateko, dena; behar zan guztiako. Sukaldek ez baitzeuden moldatuk. Mediku bat etorri ta zer? Fregadera bat eaman beharko zendun. Ta fregadera deskuidatzen bazñen hain txukuna ez zan egongo. Udik ez baldin bazeukezun nola ba?
-Beheko sua nun izaten zan, sukalde erdian?
-Ez, guk beti baztarren.

15. Ezkonberritan baserria pixkanaka betetzen

- **Erref:** BRS-022/029
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Ezkonberritan aurrera ateratzeko nola moldatu ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Derrior-derrior ba baserrie behar zendun, handik atea behar zun. Ganadukin esnea, txekorrak, geo amak-eta eukitzen zittuen txerrik, oilloak; bizie ateatzeko ta hala're juxtu-juxtu ateatzen zan. Guk geok honea etorri giñenen era hortaaxe etorri giñen. Ekarrri giñun behiek eta txerri bat, oillo batzuk eta hasi giñen ba hoikin. Ta nola beste iñora lanea-ta ez giñen ateatzen, etxeko gastue dena atea behar gendun hortik. Gero itten gendun babarruna ta, ba hoi're saltzen gendun. Tolosa feria jun-eta hoi saldu ta hoikin hartzen gendunakin asteako etxeako behar zana ekartzen gendun. Jornalik ez da izan.

16. Zazpi seme-alaba aurrera ateratzen

- **Erref:** BRS-022/030
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Zazpi seme-alaba mantentzea gogorra izan zen, baina eskola bukatu eta lanean hasi zirenean erraztu egin zen kontua. Seme-alabei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

- Ba holaxek ateatako bizimodue deu guk, bueno! Guk gurasoetatiken hoi ezautu gendun ta bate perezaike gabe hartu gendun gaiñea hau. Ez zigun,

ez dakit, ez zitzaigun iruittu zaille zanik. Baiño gero hasi giñen ta ez zan erreza. Gero horrenbeste ume giñun. Hoik denak aurrea ateatzeko... Ordun kanpoa eskolaa juten ez zala. Zarrena jun zan eskolaa Arrasatea-ta, hue bai. Hue kosta zitzaigun baiña bestela ikasi zuena hemen ikasi zuen. Suerte bat ona izan gendun guk eskolatiken hamahiru-hamalau urtekin ateatzen zienen lantokie zegoan, ta gure umek ba hamabost-hamasei urte hortan lanea hasi zien bai bixkiok eta denak hasi zien bere lanea. Ta ordun ez gendun harrenbeste behar ta bueno, errezago bultza giñon, ez. Baiño bitartekoa izan zan nahiko goorra. Nahiko goorra izan zan, bai. Oaiñ, handiken aurrea hoik bere lanetaa joan zien. Gaztenak oain dauzke berrogeta sei urte, eta harek batxillerra harrek in zun. Ez zun nahi beak, e. Ikasteko gogo haundie ez zun eta ez zun nahi, baiña hok senidek esaten zien "baietz, hori ikasi in behar dezu Anamari, gu lanea jungo gea baiño zuk ikasi in behar dezu" ta. Batxillerra atea zun baiño ez zun aurrea segittu nahi izandu. Joan zan Azpeitiko bere ahizpakin. Ta harekin neskame zeoala mutil-lagune orduako azpeitiarra zun hemengoa, [...], Lasaokoa, eta harea joan zan eta handiken bi urtea edo ezkondu zan eta bik han bizitu die.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com